

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

423

300/2024 EBAZPENA, urriaren 30ekoa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoarena, zeinaren bidez Amaya Trujillo Barbadillo andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestiboko Zerbitzu Sanitarioko Buru kargutik kendu kentzen baita, berak hala eskatuta.

398/2023 Ebazpenaren bidez, Amaya Trujillo Barbadillo andrea Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestiboko Zerbitzu Sanitarioko Buru izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan (2023ko ekainaren 15eko EHAA, 113. zk.).

Ebazten duen organoa eskuduna da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.2 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera. Horren arabera, lanpostu hori hutsik badago, erakundeko Zuzendaritza Medikoak hartuko ditu bere gain zuzendari-gerentearen eginkizunak.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Amaya Trujillo Barbadillo andrea Zuzendaritzako Kirurgia Orokorra eta Aparatu Digestiboko Zerbitzu Sanitarioko Buru kargutik kentzea berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko urriaren 31n izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2024ko urriaren 30a.

Barakaldo-Sestaoko ESiko zuzendari medikoa,
MARÍA LOURDES VIVANCO GÓMEZ.